

Bide Otik

IKUS-ENTZUNEZKO
BESTELAKO
NARRATIBEI BEGIRA

2017

ARTEA ETA
KULTURA



Honekin lankidetzan eginaz:



Az
Azkuna Zentroa

Alhóndiga Bilbao

www.azkunazentroa.eus

IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA

Urtarrilak 24 - abenduak 19

3€ /  2€

Urtarriletik abendura Azkuna Zentroak BideOtik antolatzen du, ikus-entzunezko bestelako narratibei begira jarrita, bideoaren bidez inguruan duguna erregistratu eta irudikatzeko modu berriak ekarriko dizkigun zikloa.

Itxaso Diazek Azkuna Zentroarekin batera koordinatutako programa honen bidez, agerian jarri nahi ditugu bertan, estatuan eta nazioarte osoan sortu eta egin diren bideo-sorkuntzako lanak eta proiektuak, arte-, sorkuntza- eta kultura-arlotik datozen eta ikus-entzunezko hizkuntza modu pertsonal, intimista eta hurbilagoan darabilten pertsonen egindakoak.

ANIZTASUN SOZIALA ETA KULTURALA - IBILBIDEAK

dira 2017ko BideOtik erakutsiko ditugun ikus-entzunezko hamar lanak multzokatzeko ditugun bi esparruak. Hileko saio bakoitzean, egileak izango ditugu aurrean, beren lana aurkezten, eta prozesua eta bertan parte hartu direnak erakusten.

BideOtik saioak hilean behin izango dira, asteartarekin, 19:00etan, Bastida Aretoan eta Kulturen Atarian, proiektzioaren arabera, eta prezioa 3 eurokoa izango da, 2 eurokoa Azkuna Zentroa txartela edukiz gero.

Sarrerak salgai Infopuntuan eta www.azkunazentroa.eus helbidean

- Bideo Erregistroa, Bideo Memoria. -

Arantza Lauzirika Morea

Etzeko egongelako telebistan garai batean ikusten genituen antzinako telesailetako kapituluaren hasierarekin analogia eginez (aurreko episodioetan...), BideOtik programaren aurreko bi edizioetan ikusitakoa (eta entzundakoa) aipatuz hasi nahi dut. Hitz bakar batekin laburbil daiteke: beharra. Hautaketa gaika egiten duten programazioak izateko beharra, interes-irizpideetan oinarrituak, bideo-euskarria ardatz bezala erabiltzen duten artisten eta kolektiboen piezak; bideoa ardatz, sortzeko ez ezik, komunikaziorako, harremanetarako edota ingurune sozial edo ekonomiko jakinetan kontu bereziei erantzuteko ere bai.

Zenbaitek zalantzan jar dezakete ikus-entzunezko piezak programatzeko beharra, guztia bideoa den garai honetan, youtuberren aroan, Internetek gure galdera guztiak erantzuten dituen aldian, klik xume baten bitartez den-dena gure pantailara iristen zaigun gaur egunean. Egia da, behar edo bila dezakegun edozerk berehalako batean ditu milaka erantzun bilatzailerik erabilienean. Baina, bilatze horien emaitzen aurrean, bi galdera egin behar dizkiogu geure buruari. Lehenengoa oso soila da: zeintzuk dira gure bilaketaren erantzunak agertzeko hurrenkera erabakitzen duten irizpideak. Bigarrena, aldi berean, beste galdera bat da: zer gertatzen da aurkitu nahi duguna bilatzen ez dakigunean? Eta horrelakorik baden ere ez dakigunean?

Umberto Eco prentsan argitaratutako artikulubilduma bat jasotzen duen hil ondorengo liburu batean¹, badira sare sozialak eta Interneten

gaia jorratzen duten artikuluko batzuk, hainbat azterketa-ikuspuntutatik hartuta. Eco, itxura batean gaiarekin kezkatuta, zenbait alditan adierazi zuenez, sareak ia dena esaten duela egia izan arren salbuespen bat bada; izan ere, ez dio erantzuten galdera honi: nola bilatu, iragazi, hautatu, onartu edo baztertu helarazten dizkigun informazio horiek guztiak. Beste alde batetik, informazio horiek ez dira bilatzen sarritan... alderantziz, eurek topatzen gaituzte gu. Gure pantailan agertzen zaizkigu, gure mugimenduak zelatatzen dituzten cookiek eragiten dutelako informazio horiek guretzako hautatzea, gure lehenagoko bilaketekin lotutako interesen arabera. Itsasoaz bestaldeko zerbitzari batean ostatu hartutako programaren batek erabaki du, behinola X-i buruzko bilaketa bat egin genuenez, edozein arrazoiengatik X-ekin zerikusia duten kontu guztiak interesgarriak direla guretzat.

Hala eta guztiz ere, pertsonak eta makinak bereizten dituen zerbait izatekotan, iragazteko gaitasuna da hori; hau da, giza memoriari hautatzeko duen gaitasuna. Pertsonak ez dute beren bizitzan zehar ikasi, ikusi eta entzundako guztia gogoratzen. Euren memoriaren zoko batean gorde dezakete zirrara eragin zien zerbait, ikasteko balio izan zien zerbait edo une jakin batean erreferente izan zuten zerbait. Hala eta guztiz ere, Internet makinaren metatzeko gaitasunak ia ez du mugarik. Hori dela eta, behin eta berriz jotzen dugu harengana paradoxikoki gure hutsuneak betetzeko. Edonola ere, interes ekonomikoek arautzen dituzten iragazte-irizpideak baizik ez ditu jarraitzen.

Ecori, Groysi² edo beste hainbati bezala, guri ere gatazka bat eragiten digu Internet, bitartekaririk gabe, artisten eta sortzaileen zerbitzura informatzeko, hedatzeko eta banatzeko baliabide izateko utopiai, eta, aldi berean, Interneten herri-ulerkerak, ekonomiari jarraitzen ez dioten hautatze-irizpideei lotu gabeko distopia bezala. Internet, arteak edo sortzeko beste forma batzuek youtuberekin, publizitatearekin, tutorialekin, sukaldeko errezetekin, era guztietako promesekin, txantxekin, fakeekin... partekatzeko duten gune gisa, iragazkirik gabe, bereiziko dituen markorik gabe. Informazio guztia ostatatzen duen Internet, baina hezten ez duena, irakasle baten, komisario baten edo programatzaile baten irizpiderik ez duena (edozein izanik ere).

Zenbat aldiz aurkitu izan dugu interesa piztu digun artelan edo egile bat erakusketa, jardunaldi, hitzaldi, ikastordu edo horrelako batean? Hasierako aurkikuntza horretatik abiatuta, interesgarria irudi zaigun egilearen beste lanen bila hasi izan gara, bere web-orri, blog, bideo edo testuaren bila. Baina, hasieran, hirugarren baten jakintzan oinarritutako klik hori behar izan dugu, bila genbiltzana aurkitu ahal izateko. Horregatik, Bide0tik programak duen programazioa behar da guri erakusteko, sarean eskuragarri egonagatik ere, beharbada inoiz ere ez garela bila ibili, ez interes ezagatik, baizik eta ezjakintasunagatik.

Azpitituluak argitzen duenez, erregistro dokumentalaren prozeduratik hasita, euren buruaren kontalari bihurtzeraino aldatu diren beste ikus-entzunezko narrazio batzuei adi jarrita. Ikuspuntu post-performatibo batetik sortuak dira, ekintza sortzen den unean ekintzako partaide ez den ikuslearentzat, ondoren ikusten duen ikuslearentzat. 80ko hamarkadako bideo-sormena edo bideo-arte etiketa haietatik urrun daude; orduan, formatu bat aurkitzeak eragotzi egiten zuen benetan zena ikusten: sortzeko prozesuaren

barruko beste prozedura bat gehiago. Aintzat hartuta egitura desberdinetako uren artean –erakustaretotik zinemaldiraino– igerian dabilen baliabide bat, bestalde, askotan jaramonik ez egiteagatik lokatzetan hondoratzen dena, artean ere instituzionalizatu gabe dauden formatuetara aurreratzeagatik.

Ikuslea fisikoki piezarekin harremana gauzatzeko lekura joaten den espazioa da: han pieza behatzean murgildu ahal izango da, beste kontu guztiak utzita, markoa emanez, leku bat. Han, lan-prozesuari buruzko adierazpenak entzuteaz gain, zer, zergatik, zertarako, zeinentzako, nola eta non guztiak, egileekin bertatik bertara hitz egiteko aukera dago. Egileak izan daitezke lanbide-heziketako ikastetxeetako ikasleak, Komunikazio Zientzietako Fakultateko edo Arte Ederretako ikasleak, estatuan nabarmendutako artistak, batzuetan Europa osoan ezagunak ere bai. Edota ibilbide laburra bezain bizia duten sortzaile hasiberriak, euren lekua nekez aurki dezaketenak ur (oraindik) zingiratsuko munduan, hor guztia bideoa dela ulertzen baita, baina bereizi gabe, iragazi gabe. Sormen-prozesuan esperimendatzen ibiltzeagatik ordaindu beharreko prezioa da, merkatuari jaramonik ez egiteagatik, finkatutako formatuekin ez konformatzeagatik, erakundeek euren programazioetan nola txertatu ez dakizkiten bideak bilatzeagatik. Bide0tik programak erantzuna eman nahi dio hedatzeko beharrari, bai eta prestakuntzako beharrari ere, sorkuntza esperimendalaren zaindu gabeko arlo batean; kasualitatez mugimenduan dauden irudiak erregistratzeko formatuak erabiltzen baititu, bideoa deitzen duten hori.

¹ Eco, Umberto. *De la estupidez a la locura. Crónicas para el futuro que nos espera*. Editorial Lumen 2016.

² Groys, Borys "El arte en Internet". *Campo de Relámpagos*, 2016-12-04. Hemen dago eskuragarri: campoderelampagos.org

- ANIZTASUN SOZIALA ETA KULTURALA -

Itxaso Diaz, bideo-sortzailea eta BideOtik zikloaren koordinatzailea

01.

Aurten ere abian jarri dugu **BideOtik, ikus-entzunezko bestelako narratibei begira** programa, joandako bi edizioen inguruko analisia eta gogoeta egin ostean. Esker onez gaude, bai jendearen harrera eta erantzunagatik, bai eta hezkuntza-arloak gurekin izandako lankidetzagatik ere: EHUko Arte Ederretako, Gizarte eta Komunikazio Zientzietako fakultateak eta Tartanga LHII. Gorantz doa urtez urte lankidetzak, tailer eta solasaldi osagarrien bidez, programazioaren eta prestakuntzaren artean zubiak finkatzeko aukera bezala hartzen baititugu horiek.

2015ean eta 2016an gertatu dena ikusita, aldakuntza txiki batzuk proposatu ditugu, gure gogoak sendotzen lagun gaitzaten: alde batetik, bideoa bitartekaritza-tresna moduan erabiltzen duten proiektuetarako, eta, beste alde batetik, lankidetzak zabaltzeko, hezkuntza-esparruan ez ezik, BideOtik zikloaren programazioa elkarlanean eraikitzen lagunduko duten beste eragile kultural batzuekin ere.

Urteko lehenengo atala multzo handi moduan osatu da, **aniztasun soziala eta kulturala** arretaren bilgune bihurtuta. Ikus-entzunezko

bitartekaritza BideOtik 2017ko programa osatzen duten saio batzuetan azalduko da, pertsonen arteko komunikazio moduan, memoria kolektibo bezala, partekatutako identitate gisa ulertuta. Bilboko Zinema Pop elkarteak (Olga Ruizek, Elena Morcillok eta Jesus Pueyok) esku-hartze artistikoak eta kulturalak egiten ditu erkidegoetan, sormen kolektiboko prozesuen bidez elkarlanean praktika zentratu gabeak sustatzeko. Honako proiektu hauek aurkeztuko dituzte: **La copla del desamor (Desamodioaren koplak)** Askabide elkartearekin elkarlanean eta **Malkoak eurian, Droneen hiria** Bakuwarekin elkarlanean. Kataluniako **En torno a la silla** kolektiboak dinamikak garatzen ditu funtzio-aniztasunaren eta eskuragarritasunaren inguruan. **Vidas fuera de catálogo (Katalogoz kanpoko bizitzak)** proiektu dokumentalean, diseinu askea eta laguntza teknikoko eta pertsonaleko produktuak agertzen dira, estandar ortopedikoen alternatiba bezala. **Atrapados por la serpiente (Sugeak harrapatuta)** Alvaro Fierrok eta Ibon Ibarluceak zuzendutako proiektu dokumentala da, sormen-bulkadaren eta irudimen nostalgikoaren inguruan egindakoa. Istorio unibertsal bat da, Cancer Moon

talde underground eta taldeko kantaria zen Josetxo Anitua protagonistatzat hartuta. Bilbon bizi den Malagako Laurita Siles artistak identitate eta folklore kontuei lotutako proiektuak garatzen ditu, hala tokian bertan, nola kanpoan kokatutakoak. Enkarterrin egindako bi proiektu aurkeztuko ditu Bldē0tik programan: **Putxeramobil eta Mutur Beltz**. Era berean, Bilbon bizi den Madrilgo **Mawatres** artistak memoria historikoari, lurraldeari eta herritarrei lotutako proiektu artistikoak diseinatzen eta gauzatzen ditu. Bere azken lanetako batzuk erakutsiko ditu Bldē0tik programan: **Montes bocineros (Deiadar mendiak), Santa Roma de Sau, Monumento a los campesinos asesinados (Eraildako nekazarien monumentua)** eta **Fuera de pista (Pistaz kanpo)**.

Aurten, berrikuntza gisa, saio bat Azkuna Zentroko atariko pantailan egingo dugu. Gune horretan dabilen jendeari eta erabiltzaileei Bldē0tik zikloaren programazioa hurbiltzea da helburua. Horretarako, Bordelen bizi den Libanoko **Stephane Abboud** artista gonbidatu dugu. **L'autre** (Bestea) ikus-entzunezko pieza aurkeztuko digu: pantailaren eta ikusleen arteko barne-kanpoko elkarriketa.

Aurten ere **EHU eta Tartanga LHIIko** lanen erakusketa saioa egingo dugu, iaz harrera ona izan zuelako, hiru erakundeen arteko bilgunea osatzen duelako, eta bertaratutako bideo-errealizatzaileen sorkuntza-lanak ikusleei hurbiltzeko aukera ematen digulako.

Eta hirugarren urtez jarraian, **ibilbideak** (Trayectorias) atala izango dugu: bertan, gonbidapena egiten diogu hainbat egileri hautu bat eta ibilbide bat egin dezaten beren filmografian barrena. **Txuspo Poyo** artista izango da sekzio horretako komisarioa, eta, era horretan, areago zabalduko dugu Bldē0tik zikloaren inguruan hain sutsu bideratu nahi dugun elkarlanaren esparrua.

- IBILBIDEAK -

Txuspo Poyoren hiru ekitaldiko proposamena Ibilbideak lanerako

02.

Hiru proposamenak bat datoz ezaugarri batean: artelanak luzatu egiten dira denboran zehar, batetik, proposamenen denbora-ibilbideagatik, eta, bestetik marrek inskribatuta utzitako arrastoen azterketa zehatzagatik: memoria, denbora, identitatea eta ondarea oso modu bakanetan elkarlotzen dira. Lotura horren bitartez, gorputz fisiko, soziologiko eta ingurumenekoarekin espekulatzen da, joan-etorriko inguru batean, informazioarekin espekulatzen da, jarrerekin espekulatzen da, mugikortasunarekin, desorekekin eta kolapsoarekin ere espekulatzen da.

Cecilia Barriga ekintzailea izateagatik nabarmentzen da, genero-, gizarte- eta politika-arloko mugimenduekin engaiatuta egoteagatik. Lehenengo obretatik hasita -hala nola 90eko hamarkadako Encuentro entre dos reinas (Bi erreginen topaketa)-, bereganatzearen erabilerak genero-arloko mezu argia izan du, eta transferentzia kulturalaren zentzu osoa jasotzen du. Azken hamarkadako proiektuan, Cecilia ekintzaren barruan kokatzen du kamera. Hau da, kamerak parte hartzen du, gertatzen denaren partaide bat da, eta gertatzen dena erakusten eta jasotzen du. Cecilia

suminduen topaketetan parte hartu zuen Madrilen, New Yorken eta Txileko ikasleekin Tres instantes, un grito lanean.

Montserrat Soto artistak lekuak husten ditu, ez edukiz, subjektu fisikoz baizik. Bizileku diren tokiek pisu historikoa hartzen dute gizakirik gabekoan aurrean, galeraz hitz egiten digute, hondakin arkitektoniko horietatik ibili dabilen mamuaz, neurri txikian edo handian. Memoria historikoko artxiboek eta lekuek ondarrera eramaten gaituzte. Ondareak utopiaren eta distopiaren artean dirau. Montserratek barnean kokatzen du kamera, kanporantz begira. Gertaera bat behatzen duen subjektibotasun erreflexiboak finkatzen du irudiaren trataeraren eta ezkutuan dagoenaren arteko distantzia.

Mira Bernabeuren lana, nolabait, aurreko bi lanen uztarketa bat da, elkarren arteko aldeak nabarmenduta, jakina. Miraren lanean, subjektua da aztertzen den ardatza. Subjektu hori antezki kutsuko koreografia baten barruan agertzen da berriz ere. Mirak harreman-ekosistemak eraikitzen ditu ikusleen eta gainerakoen begiraden

aurrean. Irudiak ezaguna zaigun jarrera instituzional bat hartzen du: laneko gorputza haren familia da. Familia belaunaldiz belaunaldi azaltzen da, eta, aldi berean, batasun solidoko bloke gisa ere bai, bereizgarri eta guzti, balio antropologikoak, sozialak eta psikikoak irudikatuta.

Kamera kanpoan dago, baina barruan ere bai. Lekuak garrantzia galdu du, eta eszenaratzea garrantzitsuagoa da orain. Dekoratu soilago ageri da, inolako artifiziorik gabe. Argiztapena ere gogor agertzen da, hondoko subjektuak isolatuz eta, batzuetan, baita gainerakoak ere; lagungarri izan daiteke beren artean konplizitatea sortzeko.

Inguruko austeritatearen aurrean, giza afektua azpimarratzen du nola-halako atmosfera metafisikoaren bitartez.

URTEKO
PROGRAMA

1

ANIZTASUN SOZIALA ETA KULTURALA

URTARRILA-OTSAILA- MARTXOA
APIRILA-MAIATZA-EKAINA-UZTAILA

Urtarrilak 24 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

ZINEMA POP

**Ikus-entzunezko proiektu sozialak
eta parte-hartzean oinarritutakoak**

Olga Ruiz, Jesús Pueyo,
Elena Morcillo

Otsailak 21 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTU IDENTITARIOAK

Laurita Siles

Martxoak 21 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

ATRAPADOS POR LA SERPIENTE

Álvaro Fierro & Ibon Ibarlucea

Apirilak 11 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

MAWATRES / BI TIRO TXORI BERARI

Juan Pablo Orduñez

Maiatzak 16 19:00
Kulturen Atariko Pantaila

L'AUTRE

Stéphane Abboud

Ekainak 13 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

UPV/EHU ETA TARTANGA LHIBKO IKASLEEN IKUS-ENTZUNEZKO LANEN AUKERAKETA

Uztailak 11 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

VIDAS FUERA DE CATÁLOGO. IBILBIDE BAT IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTU AMAIGABE BATEAN BARRENA

En torno a la silla

2

IBILBIDEAK

URRIA-AZAROA-ABENDUA



Urriak 24 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

CECILIA BARRIGA

Azaroak 14 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

MONTSERRAT SOTO

Abenduak 19 19:00
Bastida Aretoa. -2. Solairua

MIRA BERNABEU

SARRERAK SALGAI
INFOPUNTUAN
(informazio gunean) eta helbide
honetan: www.azkunazentroa.eus

1

ANIZTASUN SOZIALA
ETA KULTURALA

• Programa •

URTARRILA-OTSAILA-MARTXOA-
APIRILA-MAIATZA-EKAINA-UZTAILA

*Urteko lehenengo atala multzo handi moduan osatu da, **aniztasun soziala eta kulturala** arretaren bilgune bihurtuta. Ikus-entzunezko bitartekaritza BideOtik 2017ko programa osatzen duten saio batzuetan azalduko da, **pertsonen arteko komunikazio moduan, memoria kolektibo bezala, partekatutako identitate gisa ulertuta.***

ZINEMA POP

Ikus-entzunezko proiektu sozialak eta parte-hartzean oinarritutakoak

Olga Ruiz, Jesús Pueyo,
Elena Morcillo

Urtarrilak 24 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTU
IDENTITARIOAK

Laurita Siles

Otsailak 21 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

ATRAPADOS POR LA SERPIENTE.

Álvaro Fierro & Ibon Ibarlucea

Martxoak 21 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

MAWATRES

BI TIRO TXORI BERARI

Juan Pablo Orduñez

Apirilak 11 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

L'AUTRE

Stéphane Abboud

Maiatzak 16 19:00h

Pantalla del Atrio de las Culturas

UPV/EHU ETA TARTANGA LHIBKO

IKASLEEN IKUS-ENTZUNEZKO

LANEN AUKERAKETA

Ekainak 13 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

VIDAS FUERA DE CATÁLOGO.

Ibilbide bat ikus-entzunezko proiektu amaigabe batean barrena.

En torno a la silla

Uztailak 11 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua



ZINEMA POP

Olga Ruiz (Cádiz, 1969)

Jesús Pueyo (Leioa, 1971)

Elena Morcillo (Reinosa, 1964)

Ikus-entzunezko proiektu sozialak eta parte-hartzean oinarritutakoak

La Copla del Desamor (Bilbao, 2014)

Malkoak eurian (Bilbao, 2016)

Urtarrilak 24 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. Solairua

Zinema Pop elkarteetan eta kolektiboetan esku hartze artistikoak eta kulturalak egiten dituen zinema-, argazkilaritza- eta gizarte-langintzako profesionalen elkarte da. 2010. urteaz geroztik, Askarri, Askabide eta Bakuva elkarteentzako sorkuntza artistikoetan eta gizarte-izaerako proiektuetan egin dute lan, bertara txertatuz emakumeak, nerabeak, terapeutak, gizarte-langileak eta arteko eta kulturako profesionalak.

Elkartearen helburu nagusia da gizartearen baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen eta kolektiboen ahalduzko soziala, teknologikoa eta pertsonala lortzea.



www.zinemapop.org



ZINEMA POP

Olga Ruiz, Jesús Pueyo,
Elena Morcillo

Emakumeen historiak, desamodioaren koplak, 2013-14.

Nor izan nahiko zenuke?

2013. urtean, proposamena egin zioten Askabide elkarteari, jakinik elkarte lanean aritzen dela gizartean bazterketa larrian geratzeko arriskuan dauden emakumeen egoera normalizatzen eta haiek gizarteratzen.

Askabiderekina batera lan egitea zen asmoa, elkarte "erkidego" bezala hartuta, terapeutak, gizarte-langileak, Askabideko erabiltzaile diren emakumeak eta kulturako langileak partaide izanik ekinean.

Proposamena film bat ekoiztea izan zen: bertan parte hartu nahi zuten emakumeek aukeratuko zuten zer film egin nahi zuten eta zer pertsonaia interpretat.

Askabideko langileek ere parte hartu zuten, euren ohiko rolak aldatuta, eta emakumeen antzezpenetan erantzuna emango zuten pertsonaia bihurtuta.



ZINEMA POP

Olga Ruiz, Jesús Pueyo,
Elena Morcillo

Malkoak Euritan, Droneen hiria, 2015-16.

Malkoak Euritanerako, laneko gune bat proposatu zen, hainbat kolektibo eta praktika bilduz. Bilbo zaharreko haurrak gizarteratzen lan egiten duen Bakuva elkarte, drone eraikitzaile bat, eta arteko eta kulturako langileen Zinema Pop kolektiboa.

Droneen tailer baten bitartez, droneetarako etorkizuneko aplikazioak asmatu genituen, aukera errealetan oinarrituz, eta garatzaileekin zuzenean arituta.

Prozesu osoan, tresna zinematografikoak erabili genituen, inguruan droneak izango ditugun etorkizun hori irudikatzen.

Otsailak 21 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. Solairua

IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTU IDENTITARIOAK

Laurita Siles (Marbella, 1981)

Putxeramobil (Enkarterri, 2013)

Mutur Beltz (Karrantza, 2015)



Laurita Siles (Marbella, 1981) Enkarterri eta Uribe Kosta artean (Bizkaia) bizi da eta lan egiten du gaur egun. Artista eta ikertzaile honek kezka berezia du lurraldearekiko; hasi ingurumenaren krisiarekin eta sustraien galerak sorrarazten duen nostalgiaraino.

'Putxeramobil' lanarekin eta 'Mutur Beltza' dokumentalarekin, jakintza, lanbide eta teknika iraunkorrak ahalduzuntzen saiatzen da, Enkarterriko ondarea kontserbatzeko eta berritzeko lanetan parte hartuz. Bi proiektuak ekoizteko eta betearazteko lanetan lagun ugarik hartu du parte, eta giza harreman asko sortu dira, elkarlaneko esperientziaz eginez, estrategia artistikoetatik eta sozialetatik abiatuta. Alde batetik, Putxeramobilari buruzko bideoan, bizikleta baten gainean paratutako putxera berezi horrekin egindako ekintzen berri ematen da. Pedalei eragitean sortutako erritmoan prestatu ziren babarrunak, bertsolariek lan hori dinamizatzen zuten

bitartean; gero, herri bazkari gozoa izan zen, eta, bazkalondoan, errezitaldia. Bestetik, 'Mutur Beltza' dokumentala aurpegi beltzeko Karrantzako ardi-arrazari eusten dieten artzainen baserrietatik egindako ibilaldiaren emaitza da; horrez gain, Karrantzako haranean tradiziozko ardazketa egiten ondo zekiten emakumeekin izandako elkartzeari agertzen da. Lan hori Mutur Beltza kolektiboak egiten duen ikerketaren barruan sartuta dago -Sustatzeko Elkarte Agroekologia, Artistikoa eta Kultura-, eta esperientzia sortzailetik abiatuta baserriaren eredu berriez hausnartzea du xede. Artetik proiektu agroekologiko bat lantzen.

[+ http://folklorenomada.com/](http://folklorenomada.com/)



ATRAPADOS POR LA SERPIENTE

UN PROYECTO DOCUMENTAL DE **ÁLVARO FIERRO & IBON IBARLUCEA**

ATRAPADOS POR LA SERPIENTE

Alvaro Fierro (Bilbo, 1978)
Ibon Ibarlucea (Eibar, 1970)

Abian den proiektu dokumentala

'Sugeak harrapatuta' proiektu dokumentala sorkuntzako bulkadaren eta irudimen nostalgikoaren inguruan mugitzen da. Istorio unibertsal bat, Cancer Moon talde underground eta taldeko kantaria zen Josetxo Anitua protagonistatzat hartuta. Cancer Moon 90eko hamarkadako eszena independenteko beste talde bat izan zen... Edo ez? Cancer Moon 80ko hamarkadaren bukaeran sortu zuten Bilbon. Estudioko hiru disko eman zituen argitara, eta desadostasunak izan zituen diskoa argitara eman zuen diskoetxe batekin. Azkena (Moor Room - 1994) urteko diskorik onena izan zen Rockdeluxen iritziz. Josetxo Anitua 2008an hil zen.

Martxoak 21 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. Solairua

NACHO VEGAS (musikaria)
JULIO RUIZ (Radio3)
MAITE ARROITAJAUREGI (Mursego)
RAMÓN ARAUZO (La Logja)
EDU RANEDO (kazetaria)
JON ZAMARRIPA (Cancer Moon)
IKER TREBIÑO (errealizadorea)
IÑIGO ROMERA (musikaria)
UNAI FRESNEDO ((musika-sustatzailea)
... eta Josetxo Anituaren arreba zen
Usua Anituaren eskutiik.
Zuzendariak: **ÁLVARO FIERRO &
IBON IBARLUCEA**
Animazioak: **NADIA BARKATE**
(frame-ka egindako animazioa,
artxiboko jatorrizko materialean oinarrituta)
Ekoizpena: **DIEGO URRUCHI & RAÚL L. ORTEGA**

 + <https://youtu.be/w6s2GK5010Q>



ALLE 07/05/2016 - ZENITH MÜNCHEN

UNDAHL UNDAHL



MAWATRES BI TIRO TXORI BERARI

Juan Pablo Ordúñez (Madril, 1986)



Apirilak 11 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. Solairua

Saio bat proposatzen da hemen, Juan Pablo Ordúñez/Mawatres egileen hainbat proiektu uztartuta, analisirako gorputz bakarra sortuz. Lan bakoitzak galdera jakin batzuk ekarriko dituela ahaztu gabe, proiektu guztiak aurkeztea izango da helburua, elkarri lotutako elkarriketa bezala. Kontakizun moduko bat, zalantzak, galderak eta batzuetan erantzunak ere eragiten dituena.

Abiapuntua ez dugu proiektu jakin batean aurkituko, baizik eta metodoan bertan, jakinik proiektuak berez ez direla diziplina anitzekoak. Horien barruan ikus-entzunezko eta marrazketako hizkuntzak ageri zaizkigu, edo beharrak eragindako esku-hartzea -ez hainbeste estiloak edo ohiturak eragindako esku-hartze errepikakorra-.

Horrela, bada, hainbat diziplinatan garatutako lan-multzoa aurkituko dugu, elkarren artean lotuta. Nork aipatu zuen heriotza?



L'AUTRE

Stéphane Abboud (Libano, 1976)

Bideo-instalazioa kiribilean 38'

Maiatzak 16, 19:00

Kulturen Atariko Pantaila

Begiratzea eta begiratua izatea: Stéphane Abbouden bideo-lanak alteritatea hartzen du aintzat, gure identitatea azaleratzen duen bestetasun gisa. Bideogilearen irudiek interpelatu, liluratu, sumindu egiten gaituzte. Bestearekin dugun harremana auzitan jartzen dute, eta, era orokorragoan, obra artistiko batek espazio publikoan duen irismena ere bai. Irudiak bitartekaritzarako duen indar guztia biltzen du hemen. Stéphane Abboud (Abidjan, Boli Kosta, 1976). Artista, bideogilea, ekoizlea eta bj-a (Vj Le Projectionniste) da. Euskarri zinematografikoa eta eskultura landu ditu instalazioetan, irudi bideo-grafikoa hainbat espaziotan eta praktikatan buru-belarri gauzatzen hasi aurretik (erakusketa, instalazio, sormenezko dokumental,

dantza eta era askotako agertoki musikaletan). Aldi berean, arlo sozialean parte hartzeko ikus-entzunezko proposamenak diseinatzeko, koreografoekin eta musikariekin lankidetzan aritzen da, eta bj-rik nabarmenetako bat da nazioarteko eszenaren barruan. Haren iritziz, irudia narratibarako bitarteko elementu ahaltzua da, ikus-entzunezko ekonomiaren eredu klasikoetatik harago doana.

Hamarkada bat baino gehiago eman du ikus-entzunezko arloko irakasle-lanetan Frantziako Université Bordeaux Montaigneko arte-sailean eta gizarte-langileentzako goi-mailako prestakuntzako eskoletan.

+ <http://st.abboud.free.fr/>

UPV/EHU ETA TARTANGA LHIBKO IKASLEEN IKUS-ENTZUNEZKO LANEN AUKERAKETA

Euskal Herriko Arte Ederren Fakultateko eta Komunikazio Fakultateko (UPV/EHU) eta Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuko (LHIB TARTANGA) ikasleen ikus-entzunezko lanen aukeraketa.



Ekainak 13 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. Solairua


Azkuna Zentroak Euskal Herriko Arte Ederren eta Komunikazio fakultateekin eta Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuarekin izan duen elkarlanaren ondorioz, Bldetik programaren edizio honetan lanak erakusgai izango dituzten artistetako batzuek ikus-entzunezko prestakuntza ematen duten zentro horietan antolatutako tailerretan hartu dute parte. Ekaineko saioan, ikasleek hautatu, eta ikasturtean zehar egin diren lanak egongo dira ikusgai. Lan horietako batzuk Bldetik programan parte hartutako ikus-entzunezko artistekin esperientziak partekatu ondoren prestatu dira.



VIDAS FUERA DE CATÁLOGO

Ibilbide bat ikus-entzunezko
proiektu amaigabe batean
barrena

En torno a la silla (Bartzelona)



Uztailak 11 19:00etan
Bastida Aretoa. -2. Solairua

'En torno a la silla' kolektiboaren hiru urteko jardunbidean zehar egindako ibilaldia, dokumentazioan jasotakoaren bitartez (bloga eta ikus-entzunezkoa).

Azken urteetako gure esplorazio material guztiek gorputz estandarrentzat eraikitako mundutik harago joan nahi izan dute, diseinu-prozesuak irekiz, gorputz desberdinen bizipenak eta beharrak aintzat hartuz eta txertatuz.

Objektuak osatuz edo baterako sorkuntzako ekitaldiak eginez, gure inguruneekin "trastegintza" materiala gauzatzea izan da proiektuaren funtsezko ardatza, baina, hala ere, gure jardueren zati garrantzitsu bat hainbat erregistrotako lanabesekin trasteak egitea izan da. Gogoeta irekia eta gure objektu eta aurkikuntza txikiak irudikatzea eta hedatzea da izan da xedea: tutorialak eta eraikitze eskuliburuak, prozesuen bideo-dokumentazioa edo elkarrizketak, testu poetikoak edo gogoeta politikoak, eta abar.

Nola eragiten du diseinu-prozesuak irekitze horrek dokumentazio-prozesuak asmatzeko garaian? Gure trastegintza dokumentaletako batzuk azalduz –besteak beste, weberako bideo ez-lineal baterako proiektuaren asmakuntza–, aurkezpen honetan, irudikatze-prozesuen funtsezko garrantzia aztertu nahi dugu, eta lorpenek eta akatsek kolektiboaren ikaskuntzan eta eraldaketa guztietan nola eragin duten ikertu.

2

I B I L B I D E A K

• Programa •

URRIA-AZAROA-ABENDUA

*Hirugarren urtez jarraian, **Ibilbideak** (Trayectorias) atala izango dugu: bertan, gonbidapena egiten diogu hainbat egileri hautu bat eta ibilbide bat egin dezaten beren filmografian barrena. **Txuspo Poyo** artista izango da sekzio horretako komisarioa, eta, era horretan, areago zabalduko dugu BideOtik zikloaren inguruan hain sutsu bideratu nahi dugun elkarlanaren esparrua.*



CECILIA BARRIGA

Urriak 24 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

MONTSERRAT SOTO

Azaroak 14 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

MIRA BERNABEU

Abenduak 19 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua



CECILIA BARRIGA

(Txile, 1957)

/ SORKUNTZA ETA IDENTITATEA MUGIMENDUAN
Lan hautatuak

'Casa en red' 2010, bideoa, 8'
'Arco nano (Arte pequeño)' 2010, 2'
'Ojo Eje', 2009, 35mm, 6'
'Mujeres por un mundo mejor'
2010, bideoa, 10'-ko zatia

'Granada treinta años después' 2010,
bideoa, 20'-ko zatia
'En el río' 2006, bideoa, 6'
'El día del euro' 2007, bideoa, 6'
'Meeting Two Queens' 1990, bideoa, 14'

Cecilia Barriga zinemagilearen ikus-entzunezko unibertsoaren zati batek etengabe aztertzen du nola eraiki eta irudikatzen diren gure identitate indibidualak eta kolektiboak. Horretan intimitatearen irudimenezko bulkada edo inguruan daukagun bilakaera kultura eta politikoa izan daitezke eragile.

Ikus-entzunezko artxiboek eta formatu txikiko atzemateek bizkor eta inork ikusi gabe erabiltzeko hizkuntza eta baliabide tekniko gisa eskaintzen duten jatorrizko materiarekin liluratuta, haren begiradak atzeman egiten du hala pertsona baten espazio intimo bakartia, nola jendetzaren bat-bateko performatibitatea. Horrenbestez, haren kontakizunen dinamika bulkatzen duen tentsioa finkatzen da etengabe bi espazioen artean.

Aurkezpen honetan azken 10 urteetan egindako lanak sartu dira, hala nola 'El día del euro' (Euroaren eguna, 2007), Zurich

hirian gaztetan maitasun historia bat bizi izan zuten bi emakume adintsuk ustekabean izandako topaketaren kontakizuna, eta 'Granada treinta años después' (Granada hogeita hamar urte geroago) bere azken dokumentalaren laburpen bat. Dokumentala feminismo independenteari eta kritikoari egindako begirada bat da, Andaluziako hiri horretan Espainiako feminismoaren historian mugarri izandako emakumeen manifestazioa gertatu zenetik hogeita hamar urtera. Artistaren obra oraindik ezagutzen ez duenarentzat ere, haren kultuko pieza proiektatuko da, 'Meeting Two Queens' (1990), AEBetan Judith Butler-ek 'Gender Trouble' (1990) lana argitaratu zuen urte berean egina. Generoaren dekonstrukzioa aztertu eta eragin gehien izan duen lana da Butler-ena, eta filmaren azpittestuetako bat ere bai.

Urriak 24 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

LET'S ROLL
ME FREE
HOMBRE
DESEOS INMORTALES



MONTSERRAT SOTO

(Bartzelona, 1961)

/ ARTEAREN ESPAZIOAK
ETA PAISAIA BIDAIAREN BIDEZ

Montserrat Sotoren lana argazkigintza, bideogintza eta instalazioen artean ibiltzen da funtsean, eta bi gai nagusiren inguruan gauzatzen da: artearen espazioak eta paisaia bidaiaren bidez. Kezka horiei jarraitzen dieten serietan oinarrituta eraikitzen ditu proiektuak. Artearen espazioetan, memoria eta sormen-ekintzaren inguruan egin izan du lan, eta bereziki garrantzitsuak dira hark egindako Datos Primitivos (Jatorrizko datuak), Archivo de Archivos eta (Artxiboen artxiboa) serieak.

Bidaiaren bidez paisaiaz egindako lanei dagokionez, inguru naturalei eta arkitekturei egin zizkien argazkiak. Esparru horietan, gizakia agertzen ez den subjektua da, uzten dituen aztarnen bidez jarrai daitekeena.

Leku horietan denbora igaro dela hautematen da, eta bakardadez beteriko atmosfera batek tindatuta ageri dira. Zenbait egilek bakardade hori barne-paisaiekin identifikatu dute. Formatu handiko argazkiak erakustokian instalatu ohi dira, trompe l'oeil efektua sortuz eta ikuslea espazioen gelaurrean utzita. Haren azken lana azpimarratuko dugu, Doom City.

Montserrat Sotok (Bartzelona, 1961) Bartzelonako Massana eskolan ikasi zuen, eta Frantzia jarraitu zituen espezializazio-ikasketak, Grenoblen, hain zuzen. Haren lehenengo erakusketa garrantzitsua Konde Hiriko Fundació Miró-ren Espai 13an izan zen 1993an.

Azaroak 14 19.00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua



MIRA BERNABEU

(Alicante-Valentzia, 1969)

2006. urtetik aurrera, Mirak praktika artistikoa eta espaivisor – Galeria Visor-eko zuzendaritza bateratzen ditu bere ibilbide profesionalean. Bi alderdi horiek garatzen dituenez, arte garaikidearen munduko zirrikituak ongi ezagutzen dituen Espainiako profesional bakanetako bat da. Horrenbestez, bokazio bikoitza du: artista eta galeria-jabea.

Miraren proiektuek interesa eragiten dute, haren ikuskera estetikoagatik ez ezik, batik bat haren alderdi sozialagatik, gizakia bera eta gainerakoekin harremanak izateko dugun modua psikologikoki eta antropologikoki analizatzeko interesagatik ere bai; betiere, arteak eskaintzen dituen aukerez

baliatuta. Taldeko erretratuen bitartez, Mirak antzerki kutsuko analisia egiten du gizakiaz. Taularatzeetan, bateratu egiten dira balio moralak eta erlijiosoak, teoria psikoanalitikoak eta hezkuntzakoak. Performance erako agertoki biluziak eta ilunak, publikoaren eta pribatuaren arteko mugak auzitan jartzen dituztenak. Bere proiektuetan bila dabil, garaian garaiko egoera soziala, ekonomikoa, kultural-hezkuntzako eta politikoa leial islatu ahal izateko. Beharbada, egin dituen ikasketak erabakigarriak izan dira horretan guztian: Arte Ederrak (EHU, Valentzia eta M.A. -Arteetako Masterra- Londresko Goldsmiths Collagen) eta Psikologia Valentiako UVn.

Abenduak 19 19:00etan

Bastida Aretoa. -2. Solairua

GURE JARDUETARA IRISTEA ERRAZTEKO NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-
GAITASUN HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOIA BEHAR IZANEZ
GERO, ESKA IEZAGUZU.
AZKUNA ZENTROA ESPAZIOA IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.



ZENTROAREN ORDUTEGIA

7:00 - 23:00 ASTELEHENA-OSTEGUNA
7:00 - 24:00 OSTIRALA
8:30 - 24:00 LARUNBATA
8:30 - 23:00 IGANDEA

MEDIATEKA BBK

9:00 - 21:00 ASTELEHENA-OSTIRALA
11:00 - 21:00 LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNA

JARDUERA FISIKORAKO ZENTROA

7:00h - 23:00h ASTELEHENA-OSTIRALA
8:30h - 23:00h LARUNBATAK ETA IGANDEAK

Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen pentsa ezazu ingurumenaren
inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin.
Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.

www.azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus

PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO

944 014 014

Jendetzako ordutegia Infopuntuan eta telefonoan:
Astelehenetik ostiralera: 8:00 - 22:00
Larubat, igande eta jaiegunetan: 9:00 - 22:00

